



**OÑATI**  
dabilen herria



OÑATIKO UDALA

## ALKATE DEKRETUA

**Nik, Izaro Elorza Arregui Oñatiko Alkatea naizenez eta Toki Korporazioetako Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridiko Erregelamenduak ematen dizkidan ahalmenetan oinarrituz ondorengo agintzea erabaki dut:**

Artikulu hauetan xedatutakoa betetzeko: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22. eta 46. artikulua; Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea; eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 79., 80 eta 82. artikulua.

Onartutako saioen egutegia ikusita.

Alkate-udalburua naizenez, bai eta toki-araubidea arautzen duen indarreko araudiak ematen dizkidan ahalmenak ikusita,

**Erabaki dut:**

Udalbatzaren ohiko bilkurarako deia egitea. Bilkura hori udal honetako Osoko Bilkuren Aretoan egin beharko da, 2021eko uztailaren 22an, 18:30etan, lehen deialdian, eta bi egun geroago eta ordu berean, bigarrenan. **Gai-zerrendako gai hauek aztertuko dira:**

1. Onartzea, hala badagokio, 2021-05-27ko ohiko osoko bilkuraren akta, (5.2021).
2. Onartzea, hala badagokio, 2021-06-24ko ohiko osoko bilkuraren akta, (6.2021).
3. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: II.12 H.G. Munazategi sektoreko sarrera egokitzeko, GI-2630 errepidean biribilgunea egiteko Hirigintzako Arau Orokorren aldaketa puntuala behin behinean onartzea, Hirigintzako Informazio Batzordean diktaminatua 2021eko uztailaren 7an.
4. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Oñatiko Udala eta Orange Espagne SAU-ren arteko Hiri-izaerako lursail baten errentamendu-kontratua luzatzea Berezao aldean, Hirigintzako Informazio Batzordean diktaminatua 2021eko uztailaren 7an.
5. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Oñatiko Udala eta Orange Espagne SAU-ren arteko Hiri-izaerako lursail baten errentamendu-kontratua luzatzea Urrutxu aldean, Hirigintzako Informazio Batzordean diktaminatua 2021eko uztailaren 7an.
6. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Oñatiko Udaleko 2020ko Kontu Orokorra onartzea, Kontuen batzorde berezian diktaminatua 2021eko maiatzaren 25ean.
7. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Oñatiko Udalaren eta IZFE SA -Informatika Zerbitzuen Foru Elkarte- arteko lankidetzahitzarmena onartzea eta horretarako adostasuna ematea, Ogasuneko Informazio Batzordean diktaminatua 2021eko uztailaren 5ean.

8. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Udal hilerrian kolunbarioak eskaintzeko ordenantza fiskalen aldaketaren akats zuzenketa, Zerbitzu Informazio Batzordean diktaminatua 2021eko uztailaren 15an.
9. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari atxikitako ALOKABIDE sozietate publikoarekin udaleko etxebizitza alokatzeko hitzarmenean 7 etxebizitza gehiago eranstea, Ongizate Zerbitzuetako Informazio Batzordean diktaminatua 2021eko uztailaren 6an.
10. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Oñatiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Plana onartzea, Berdintasun Informazio Batzordean diktaminatua 2021eko uztailaren 13an.
11. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Berdintasunerako Sailak Emakumeen Memoria Historikoa berreskuratzeko genero ikuspegidun Selma Huxley Barkham ikerketa bekaren 2021eko deialdia (III. edizioa) eman gabe geratzeko ebaztea, Berdintasun Informazio Batzordean diktaminatua 2021eko uztailaren 13an.
12. Hala badagokio, presako gaiak.
13. Hala badagokio, larrialdi-mozioak.
14. Bake epailearen izendapenaren berri ematea, 2021eko ekainaren 29an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua.
15. 790 zenbakidun Alkate Dekretuaren berri ematea, non Deba Garaiko Udal Elkartearen Batzorde Berezian, Debagoieneko Gizarte Mapa garatzeko, Oñatiko ordezkariak izendatzen diren.
16. Ekainaren 19tik uztailaren 15a bitartean eman diren alkate dekretuen berri ematea, 689 zenbakitik 783 zenbakira.
17. Galderak eta eskaerak.

2

Jakinaraz bekie berehala Udalbatzako zinegotzi guztiei, eta ohartarazi Idazkaritzan eskura dutela gai-zerrendan jaso diren aztertu beharreko gaiei buruzko dokumentazioa, eta, arrazoi justifikaturen bat dela-eta bilkurara joaterik ez badute, alkate-udalburuari jakinarazi beharko diotela, behar besteko aurrerapenaz.

Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut

Oñatin, 2021eko uztailaren 19an



Izaro Elorza Arregui